

KOSTUEN EGITURA:

Gure proiektuak hainbat kostu garrantzitsu ditu, bai ekoizpenari bai garapen teknikoari eta merkaturatzeari lotuta. Lehenengo atala hardwarearen kostuei dagokie. Ispilu adimenduna osatzeko behar diren elementu nagusiak dira kamera, pantaila interaktiboa, ispilu berezia eta hainbat osagai elektroniko, hala nola sentsoreak edo argiztapen sistemak. Kalkulatzen dugu ispilu bakoitzaren osagaien kostua 350 eta 400 euro artean egongo dela. Pantailak eta kamerak kanpoko hornitzaile teknologiko bati erosiko dizkiogu, baina muntaketa eta azken kalitate-probak guk egingo ditugu gure tailerrean. Horrela, produktuaren kontrol handiagoa izango dugu eta akats teknikoak saihestu ahal izango ditugu.

Bigarren kostu handia softwarearen garapenari dagokio. Gure ispiluak arropa konbinazioak gomendatzeko eta erabiltzailearen gustuetara egokitzeko adimen artifiziala beharko du. Garapen teknikoaren zatirik handiena gure enpresak egingo du, baina adimen artifizialaren sistamarako eta datu-prozesamendurako kanpoko enpresa baten laguntza kontratatuko dugu. Kalkuluen arabera, garapenaren lehen faseak 7.000 euro inguru inbertsioa eskatuko du. Hor sartzen dira programazio-lanak, diseinu grafikoa eta sistema probak.

Horrez gain, diseinuaren eta prototipoaren garapenak ere gastu nabarmenak sortuko ditu. Lehen ispilu funtzionala sortzeko materialetan eta egokitzapenetan 2.000 eta 3.000 euro inguruko inbertsioa aurreikusten dugu. Prototipo hori gure enpresako taldeak egingo du, eta ondoren erabilgarritasun probak egingo dira hainbat pertsonarekin, produktua merkaturatu aurretik behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko.

Beste alderdi garrantzitsua webgunea eta online salmenta-plataforma sortzea da. Domeinua, diseinua eta ordainketa-sistemaren integrazioa kontuan hartuta, 1.000 eta 1.500 euroko gastua izango du proiektuaren hasieran. Webgunearen diseinua gure taldeak egingo du, baina ordainketa-sistema eta zerbitzariaren mantentzea kanpoko enpresa bati eskatuko diogu.

Merkaturatze aldetik, marketing eta publizitate gastuak ere kontuan hartu behar dira. Gure ispilu adimenduna ezagutzera emateko, sare sozialetan eta online iragarkietan oinarritutako kanpaina bat garatuko dugu. Hasierako kanpainarako 3.000 eta 4.000 euro bitarteko aurrekontua aurreikusten dugu, eta horretarako publizitate-agentzia batekin lan egingo dugu. Hala ere, gure taldeak ere parte hartuko du edukiak sortzen, adibidez, argazki eta bideo promozionalak prestatuz.

Ekoizpen eta banaketa kostuak ere ezin dira ahaztu. Ispiluak fabrikatzeko materialak erosi beharko dira, eta ondoren bidalketak antolatu. Garraio logistikoa kudeatzeko enpresa espezializatu baten laguntza beharko dugu, produktuak bezeroei garaiz eta egoera onean irits daitezen. Gainera, produktuaren mantentze-lanak eta softwarearen eguneraketak etengabeak izango dira, erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko eta gure ispiluaren funtzioak etengabe hobetzeko.

Azkenik, gure enpresaren barruan langileen formakuntza eta lan-espazio egokia ere kostu garrantzitsuak izango dira. Langileek softwarearen erabilera eta bezeroarentzako arreta teknikoan trebatuta egon behar dute, eta horretarako barne-prestakuntza saioak antolatuko

ditugu. Horrela, gure zerbitzua ez da soilik produktuan oinarrituko, baizik eta bezeroari eskaintzen diogun esperientzia osoan.

Kostu guztien artean —hardwarea, softwarea, diseinua, webgunea, marketinga, ekoizpena eta mantentzea barne—, lehen urteko inbertsio osoa 15.000 euro inguru izango dela kalkulatu dugu. Kopuru horrek barne hartzen ditu produktua garatzeko, probatzeko eta merkaturatzeko behar diren baliabide guztiak, eta gure helburua da bigarren urtetik aurrera gastu horiek murriztu eta ekoizpena errentagarri bihurtzea.

